

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ixabel Belar Olabarria

*Bergara,
Gipuzkoa
(1914-2016)*

Aurkibidea



Biografia



Begarako Angiozar auzoko Goimendi auzuneko Gontzarrikoa baserrian jaio zen. Aita etxekoa zen eta ama Begarako Agerre baserrikoa. Gazte hil ziren senar-emazteak eta bi seme-alaba utzi zituzten. Zazpi urtetik hamalau urtera arte Angiozarreko eskolan ikasi zuen, Katalina maistra uberarrarekin. 18 urte arte baserrian egon zen. Lehenengo Lasa jatetxean, gero Donostian eta Madrilen ("Conde de Llobregat"en etxean) jardun zuen neskame bezala. Gerra hasi zenean etxera itzuli eta gerraostean Begarako Artetxetarren etxean jardun zuen neskame ezkondu zen arte. Angiozarko Zulueta Gaineke Gregorio Altuberekin ezkondu eta lau seme-alaba izan zituzten.

Zintak

BER-265

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2009-10-18
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Idoia

Pasarteak

1. Goimendiko baserriak

- **Erref:** BER-265/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:01:09. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Gontzarrigoikoan jaio zen, Angiozarren, Goimendi auzoan. 12 baserri zeuden lehen. Desagertutakoak: Paigorri, Zuloeta Gainekea, eta Gongeta baserrietako bat.</p>

2. Eskolara Angiozarren

- **Erref:** BER-265/003
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:02:30. **Bukatu:** 00:04:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

Eskolara Angiozarren joan zen. Zazpi-zortzi urterekin hasi zen. Katalina zen maistra. Neskak eta mutilak aparte egoten ziren. Erdaraz ikasten zuten, baina hitz egin euskaraz. 14 urterekin lanean hasten ziren.

3. Umetako jolasak

- **Erref:** BER-265/005
- **Iraupena:** 0:00:33. **Hasi:** 00:04:25. **Bukatu:** 00:04:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: tortoloxak, sokasaltoan, harrapaketan.

4. Gerrako kontuak

- **Erref:** BER-265/009
- **Iraupena:** 0:05:35. **Hasi:** 00:11:18. **Bukatu:** 00:16:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

<p>Zazpi hilabete egin zituzten etxetik kanpo, beldurrez. Borrokan asko hil ziren. Baserriko ikuiluan zaurituak jarri zituzten, eta hildakoak kanpoan. Etxetik gertu zegoen milizianoen postua. Han inguruan lurperatuta daude asko. Etxean koltxoiak jartzen zituzten leihoetan, balak ez sartzeko. Iritsi zirenean, fusilekin sartu ziren. Senitarteko batzuen etxera joan ziren. Ardi eta behor gabe utzi zituzten.</p>

Transkripzioa

-Ta ze, ze giro topau zebe, etxera bueltau ziñanian?

-Etxien? Ba, artietan honaiño alleatzeke zeren. Artietan ez zeuen hemen, honaiño ez zeuen artietan ezer. Baiña gero, etorri zienien, billurgarrixen izen zan. Eon giñen, ba zazpi hillebete tardauan gu. Zazpi hillebetien eon giñen, hemendiko tontorrien -hemendik be ikusten dia horrek-, tontorrien, erezen Franconak. Ta handik oso hurrien, etzien, milizianuek. Enda... billurgarrixen. Ta gero, setienbrien oin ez dakit ze egun zan, atake haundi bat eon zan. Setienbrie, ez dakit zenbata zan. Enda, hillddakuek, baiña zer zan ha!
-Bertakuak be bai? Angiozarguak be bai?

-Ez, Angiozarkoik ez, baiña...

-Euren artekuak?

-Eren artekuek, alde bittakuek, ezta? Ta esaten eben, ze esaten da hori, baionetiakin-ta behintzet. Eta... Ba, etxera... etxiek harek, oingo basarrixek dauka, barruen, ez dakit, pasillo haundi bat, ganauek eta... jaten emoteko zerak, askak-edo esaten jate. Enda ha eon zan heriduz beteta dana.

-Zeuen etxia?

-Bai. Ta ate aurrian hilddakuak.

-Joño!

-Muluen kargatzen zittuen, egurra kargatzen dan moduen, aparajuekin. Ganauen jatekua ekartzeko-ta eukitzen dabe aparajuek astuek be, ta halakotan kargatzen zittuen hilddakuek, anporrak balitzen moduan.

-Ta gero eruan?

-E? Hilddakuek, bai.

-Ta gero nora eruan?

-Ez dakit. Mulotan kargatzen zittuen, e. Gero ez dakit nora erun biheko / biko/ zittuen.

-Eta, horrek, orden, mendixen alde hontatik baeozen, horrek Franconak izango zien, ezta?

-Franconak. Eta bestien... bixenak izengo zien. Handikaldekuekin... Gure etxien, bertan, oso hurrien euen milizianuena. Ta hara aillegau zienien, harak... Ze esaten jaten? Ze esaten jaten horrei zuluoi orduen?

-Trintxerak?

-E?

-Txintxerak?

-Bai. Hara aillegau zienien, esaten eben baionetekin "Cuerpo..." ze esaten da?

- "Cuerpo a cuerpo", "cuerpo a cuerpo"?

-Baionetekin. Ta han inguruen, gero ta gero be -neuk ez nittuen ikusi, baiña-

hilddakuen hazurrek agertzen ziela. Hori, jaso ez zittuenak. Ta oin be esaten dabe han inguruan enterrauta darezela asko. Han, inguru... puntuko Intxortan be bai.

-Bai, bai, bai. Alde, baztar guztietan.

-Bai, bai, eta... ba, heriduek...

-Eta hori zer zan? Goguen daukotzu ze urte zan? Hamaseixe zan, edo...?

-Ez, ez, hamaseixen oinddio urrin erezen. Hori ezin neike oin esan ze urte zan. Setienbrien ez dakit zenbata zan horko atakie eon zana. Ta... ezin neike, oin ez naiz akordatzan ze egun zan, ze...

-Ze urte. Eguna ez, urtia. Ze urte?

-Edo, ze urte zan be ez naiz akordatzan oin, ez naiz...

-Eta gero, hori pasau ta gero, gerria akabau in zan laister edo...?

-Ez, oinddion gero, ba, handik fan gñnen, bialdu gindduzen... hara, harutzau oinddio, ezta? Ta ba... han eon giñen beste denporale baten. Ta hor etxien eon giñenien, eukitzen giñuzen koltxoiek bentanan ifinitta, balak katiatzeko, baiña, hala ta guzti be, pasau itten zien. Ta egoten giñen lurrien etzindda, tirua zanien. Ta gero, hara alleau zienien, genden familixa dana, etxien baztarreko kuarto baten, erresaixua erresatzen. Enda, etorri jakuzen holaxe, zerokin... fusillokin-edo etorri jakuzen. Enda danok jaso... zertu giñuzen. Ta, hortarako, ezkatzien, orden, ba, baserrixen esnia-ta egoten zan, ta han erezen esne danak eran zittuen, hara kuartora alleau orduko. Enda, bueno, gero... ba gu han. Baiña oinddio be hantxe segitzen eban, aurrera ez zien oinddio... aurrera ez zebein ein. Ta, gero, handik be kendu giñuezen. Geure etxetik kendu giñuzen, ta fan giñen beste tio batzun etxera, Kanpazar ondora. Eta gero, ganauok eta ardixok eta... ardixek be danak jan zittuen milizianuok. Han ermitta bat dau, nire jaiotetxien

onduen. Ta hango santua be erre eben, ta hango abade erropekin ta danak ardixon zeokin, ardixon okelok edo odolok garbitzen. Enda, ba, ardi barik, ardirik be barik geatu giñen.

-Ta ganauak errespetau zittuen?

-Ta ganauok be gehixenak desaparezidu zien. Enda bihorrak danak, bihorrak be danak galdu zien. Enda, gero ganauekin fan zien... bi tio jua zien Amorebieta ondora edo. Fuan zien ganauekin. Ta gu be, hurrengo fan giñen etxetik, hurrengo tion baserrira fan giñen lekutik, be kendu giñuzen. Gero, Elorrixora. Enda... ganauekin, esan dotena, Amorebietatik han ingurura joan zien. Ta bi ganau, bi behi-edo, geratu zien gero. Ta gero, azkena Elorrixon in giñuan. Gerria akabau zanian, Elorrixon [genden], baiña zazpi hillebetien...

-Kanpazarren eonda?

-Ez, etxetik Kanpazar ondora, ta Elorrixora. Zazpi hillebetien ibili... Horrek hiru lekutan eon giñan.

-Gerria akabau zan arte?

-Bai.

5. Bueltan, etxea hutsik

- **Erref:** BER-265/010
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:16:53. **Bukatu:** 00:18:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Etxea hutsik topatu zuten bueltan. Koltxoirik ere ez zegoen. Kristalak apurtuta eta zuloak paretan. Senarra izango zuena Teruelen ibili zen soldadu, luzaroan; sukaldari ibili zen.

6. San Migel ermitako dantzak

- **Erref:** BER-265/013
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:18:58. **Bukatu:** 00:20:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Ezpaineko soinua jotzen zuten San Migel ermitan. Dantza modukoak egiten zituzten, auzokoentzat. Luisek jotzen zuen soinua, Asentziora bidekoa zen. Igandero. Zulueta Azpikoan jokoan egiten zuten, 31n, eta mutilek boloetan. Garizuman, berriz, txirikilan.</p>

7. Mendiz mendi

- **Erref:** BER-265/015
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:21:05. **Bukatu:** 00:22:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Mendiak garbi zeuden, eta oinez joaten ziren beste auzoetara. Pagarik ez zegoen. Elorrioko feriara oinez joaten ziren. San Bartolomera eta Asentziora. Elgetara, San Roketan. Madariak erosten zituzten. Gerra ostean aldatu egin ziren gauzak.

8. Kapritxorik ez

- **Erref:** BER-265/016
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:22:54. **Bukatu:** 00:24:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gose garaian ezkondu zen, 1943an. Kapritxorik ez zuten. Esnea, artoa eta morokila, babarrunak eta porru-patatak. Zeukatenarekin gustura. Ezkondu zirenean, hautsa sartzen zen sabaitik, eta estali egin zuten.

9. Gerra ostean ere neskame

- **Erref:** BER-265/018
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:27:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Bergaran neskame egon zen hiru urtean, gerra ostean, ezkondu aurretik. Novilla oihal lantegikoa zen ugazaba, Artetxe emaztea. Mutikoari, Gonzalori, eskolara laguntzen zion. Bihurria zen mutikoa.

10. Eskolarako bidea

- **Erref:** BER-265/020
- **Iraupena:** 0:03:26. **Hasi:** 00:27:34. **Bukatu:** 00:31:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Auzolanean garbitzen ziren bideak. Eskilarak, astobidea eta gurbibidea. Atsedenekua zegoen bidean. Ijitoen beldur egoten ziren, eskolara bidean. Zapian batuta eramaten zuten gazta eta txokolatea, sagarrak. Elizpean bazkaltzen zuten, jolastu ere bai. 50 bat neska-mutiko ziren.

11. Angiozar nola aldatu den

- **Erref:** BER-265/022
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:31:10. **Bukatu:** 00:32:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Angiozar lehen nolakoa zen azaltzen du. Otxoana hutsik dago. Plazan ere baserria zegoen. Orain askoz etxe gehiago dago.

12. Garia eraman, errazionamendua ekarri

- **Erref:** BER-265/026
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:34:45. **Bukatu:** 00:36:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gariaren zati bat entregatu behar izaten zuten, gerra ostean. Bergarara eramaten zuten; astoarekin joaten ziren, eta errazionamendua ekartzen zuten: olio, azukrea, garbantzua.

13. Senarraren umetako kontuak

- **Erref:** BER-265/028
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:36:33. **Bukatu:** 00:38:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Senarrari buruzko bi pasadizo kontatzen ditu, mutikoa zenekoak. Arrasatera joaten ziren esnearekin, egunero, Kanpazartik bueltan. Esnari ura botatzen zioten, diru gehiago ateratzeko. Behin, asto gainean lokartu zen, eta agure bat airean bota zuen.

14. Senarra, labeak konpontzen

- **Erref:** BER-265/029
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:38:52. **Bukatu:** 00:40:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

Kalera ezkondu zirenean, ganadurik ez zuten. Senarrak Altos Hornosen egiten zuen lana. Etxean egiten zituen lanak berak, eta senarra labeak konpontzen ibiltzen zen; baserrietan ere ibiltzen zen lanean.

15. Muga-mugan

- **Erref:** BER-265/032
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:41:07. **Bukatu:** 00:42:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroztera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Esnea nola eramaten zuten, Arrasatera. Errazionamendu bila Bergarara joaten ziren. Mugak.

16. Ur bila

- **Erref:** BER-265/034
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Argirik ez zuten izan etxean 14 urte arte, eta urik ere ez. Edarria eta sorkia, ura buru gainean ekartzeko. Barrika gurdian jartzen zuten, ura etxera eramateko.

17. Arropa garbitzen

- **Erref:** BER-265/035
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:46:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Arropak etxean jabontzen ziren, eta gero astoarekin iturrira joaten ziren, eta hango askan aklatzen zuten. Barrika batean egosten zen arropa. Sutarako hautsa eta ur beroa.

18. Pospoloak probatu behar

- **Erref:** BER-265/038
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:47:06. **Bukatu:** 00:48:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Tabernan txokolatea, pospeloak saltzen zituzten. Pospolo bila bidali zuten, eta sasiari su eman zioten, probatzeko. Bideak, ira sailak. Gaztaina zaharrean konfesatzen ziren, mutikoak abade moduan jarrita.</p>

19. Txabilan haria egiten

- **Erref:** BER-265/042
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:50:08. **Bukatu:** 00:52:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Artilea eta galtzerdiak egiteko modua. Aitajaunak-eta garbitzen zuten artilea, eta txabilan egiten zuten haria. Pilota nola egiten zen, altura batera igota, haria zuzentzeko. Galtzak lau orratzekin egiten zituzten, gizonezkoentzat.

20. Oinetakoak

- **Erref:** BER-265/043
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:52:19. **Bukatu:** 00:53:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Oinetakoak. Narruzko abarkak erabiltzen zituzten etxean; gero etorri ziren gomazkoak. Kanean oinetakoak aldatzen zituzten, izeba baten etxean. Zapata berak zituzten, uda eta negu.

21. Txerria hiltzen zutenean

- **Erref:** BER-265/049
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:57:12. **Bukatu:** 00:58:17

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserríko lanak » Baserríko animaliak

Laburpena:

Txerria urtero hiltzen zuten, eta odolosteak eramaten zituzten inguruko baserrietara. Solomoa, urdaia, hirugiharra... aza orrian jarrita. Azukrea edo gozokiak ematen zizkieten.

22. Bergarara asto-banastan

- **Erref:** BER-265/052
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:00:06. **Bukatu:** 01:01:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Umetako kontuak. Bergarara Pazkoetan joaten ziren, aitajaunarekin, behorrean banastak jarrita. Txilínak eta intxarriak erosten zizkion traperoari aitajaunak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com